

**2014KO AURREKONTUAREN
MEMORIA ETA EZAUGARRI
NAGUSIAK**



2014KO AURREKONTUAREN MEMORIA

Aurrekontua giltzarria da Udal gobernuaren politikan. Lehentasunak aurrekontuaren bidez ezartzen dira, baliabideak esleitu, eta urteko agenda politikoa finkatzen dugu. Azken batean, aurrekontuan jasotzen da hurrengo ekitaldian Udalaren jarduera programa zein izango den, eta agiri honek zuzenean eragiten die Arrasateko herritarrei.

Mundu mailako krisialdi ekonomiko eta finantzario baten erdian gaude une honetan, eta geroz eta nabariagoak dira kapitalean, merkatuen nagusitasunean eta neoliberalismoan oinarritutako sistema ekonomiko eta politiko honen ondorioak.

Bizi dugun egoera ekonomikoak eta sozialak eskatzen digu agintaldiko lehentasunak buru-belarri jartzea ekonomia biziberritzeko eta pertsonen arazoei erantzuteko lanetan.

Inoiz baino behar handiagoa dugu aldaketa politiko eta sozial bat irudikatzeko, gure herriaren etorkizuna erabakitzea ezinbestekoa baita bizirauteko. Gure baliabideak gure beharren arabera erabiltzeko gaitasuna izan behar dugu, krisialdi ekonomiko honetatik irteteko.

Fagor etxetresna elektrikoen bukaera mingarriak, zuzenean edo zeharka, denok ukitzen gaitu eta hausnarketa larri hau egitera garamatza: eredu kooperatiboa ez dago ezbaian. Alderantziz, elkarlanean aritzeko beharra indartu egin da. Inoiz baino beharrezkoagoa da pertsonetan oinarritutako eredu bat; pertsonak kapitalaren gainetik egongo direnekoa.

Hona hemen 2014ko aurrekontuaren lerro nagusiak:

1. **Finantza egonkortasuna ziurtatzea**, Udal Finantzaketako Foru Fondotik, diru-laguntzetatik eta tasa eta zergetatik datozen diru-sarrerek eusten dute, batez ere, egonkortasun hau.
2. **Gastu arrunta arrazionalizatzeko prozesua mantentzea**, kostuak murriztuz, azpikontrataturako zerbituetan emaitza onak hobetuz, aurrezteko aukerak antzemanaz eta baliabideak hobeto erabiliz, langileei eta administrazio funtzionamenduari buruz.
3. **Udal zerbitzu nagusiak emango ditugula bermatzea.**
4. **Finantza-zorra murriztea**. Alde batera uztea, egun suposatzen duen kostu handiarengatik, zorpetzea gehitzeko aukera, nahiz eta apurka-apurka murrizten doazen beste administrazio batzuetatik jaso beharreko diru-laguntzak.
5. **Inbertsioen periodifikatzea**, horiek exekutatzeko plangintza egoki baten bidez, aldi baterakoa eta kuantitatiboa.

Datu baikor batekin hasteko, aurreikusten da 2014ko Udal Finantzaketako Foru Fondoak -Udalaren baliabide nagusia- bere ekarpena gehitzea. Kontrapuntu gisa, berriz, oraindik gauzatu barik jarraitzen duen Udal Legearen onarpena dugu. Udalon eskumenean eta finantzaketaren gaia behingoan argituta eta erabakita geratu dadin, Udal Legea onartzea behar beharrezkoa dugu. Izan ere, lege hau onartu barik dagoelako jarraitzen dugu guri ez dagozkigun kargak eta zerbitzuak gure gain hartzen. Horren ondorioz egokitzen zaigu Udalo geroz eta handiagoak diren beharrei erantzutea, geroz eta baliabide urriagoekin.



Enplegua errekupeartzeko borrokan, nahiz eta berez ez izan Udalaren zuzeneko eskumen bat, egingo dugu geure ahaleginik handiena. Lan barik geratzea da gizarte bazterketara garamatzen lehen urratsa; horregatik, konpromisoa hartzen dugu krisiak gehien kaltetu dituen bizilagunekin. Honenbestez, Ongizateak lehenetsuna izaten jarraituko du eta, iaz bezala, helburu horietarako diren kontu-sailak handitzeko aukera zabalik utziko dugu, diru-kopuruak gehitu ahal izateko, beharrak hala eskatuz gero.

Etorkinen eta berdintasunaren eremuan lan egiten jarraitzeak berebiziko garrantzia du bazterketari aurre egiteko. Berdintasunik gabe ez dugu izango benetako integrazioerik eta emakumearen berdintasunaren alde egitea da, hain zuzen, familia osoen bazterketa sozialik ez gertatzeko erarik onena.

Gure konpromisoa da kalitatezko zerbitzu publikoak ematea eta ahalik eta modurik eraginkorrenean egin nahi dugu hori. Jakin badakigu horien finantzaketa herritarrengandik datorrela eta Udal honetara iristen den euro bakoitza ahalik eta modu egokienean destinatu behar dugula. Horregatik, ezinbestean hobetu behar dugu eraginkortasuna baliabide publikoak erabiltzerako orduan. Inbertsioei dagokionez, adierazi behar dugu Gizarte Ongizateko bulego berriak 2014an bukatuko ditugula. San Josepe berriro urbanizatzeko proiektuaren lehen zatia eta Udala auzoko urbanizazioa bi ekitalditan egingo ditugu, 2013an eta 2014an.

Aurtengo ekitaldian Makatzena auzoa birgaitzen hasiko dira. Obra hori auzotarrek ordainduko dute, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Udala, SURADESarekin batera, Planaren kolaboratzaile da, eta konpromisoa hartua du, batetik, auzoko atzealdeko errepedea konpontzeko eta, bestetik, igogailuaren proiektua eta haren bideragarritasuna berriro aztertzeko. Udal Artxiboari dagokionez, zati bat Markuleten egokituko da, oraingo artxiboaren leku falta konpontze aldera.

Garaia-Takolo errepede zeharkaldiaren proiektuaren exekuzioaren zati bat egingo dugu Foru Aldundiak Udalari eskumena eskualdatzen dionean. Hortaz, Foru eskumeneko errepede orokorra izatetik udal eskumeneko hiri ibilbide izatera pasatuko da. Datorren urtean ere Zarugalde atzealdean mendi-hegalari eusteko obrak hasiko ditugu.

Mugikortasun planari dagokionez, ibilgailu pribatuaren zentzuzko erabilera bultzatzeko eta mugikortasuneko beste aukera batzuk emateko, TAO sistema jarri dugu abian Uribarri-Loramendi gunean. Datorren urteko erronka izango da erdialdean ezartzea.

Bide segurtasunari buruz, trafikoaren gaineko ordenantza onartu dugu. Izan ere, beharrezkoa dugu Arrasateko mugikortasunari erantzungo dion Ordenantza bat izatea; gai honetan gauzatzen ari diren aldaketak kontuan hartuko dituen: oinezkoari emandako protagonismo berria, bizikletaren erabilera sustatzea eta garraio publikoaren lehenetsia, kasu. Alde zaharra oinezkoentzat jarri izanak, bidegorriek eta bide publikoaren erabiltzaileen artean izan daitezkeen liskarrek arauak ezartzera behartu gaituzte, eta horietako bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak mugatu ditugu.

Oraingo garabi zerbitzuak defizita sortzen du eta nabarmen hobetu daiteke; hortaz, planteatzen dugu zerbitzua udal langileez bermatzea.



Udal Azokari dagokionez, 2014ko urtea giltzarria izango da, saltoki berriak adjudikatzea dagokigu eta. Herritarrekin, saltokietako oraingo adjudikaziodunekin, baserritarrekin eta gizarte eragileekin prozesu ireki eta parte-hartzailea bultzatu eta gero, helburua da saltzaileen eta kontsumitzaileen oraingo beharrekin bat datorren azoka jartzea abian.

Kurtzetxiki mendia balorean jartzeko, hango lursailak abeltzaintzarako aprobetxatu daitezten eta lehen sektorea bultzatzeko, hainbat jarduera egingo dugu, mendi hau kalitate handiko larre bihurtzeko. Plan horretan bertan hemengo oihanpearen hazkundera babestu nahi dugu, batez ere, artadi kantauriar gazteena, eta gaur egun dagoen artadia kontserbatu. Halaber, mendi honen erabilera didaktikoen eta aisialdiaren sustapena bultzatu nahi dugu. Horretarako, aurreikusita dago bidezidor batzuk egokitzea eta inguruan seinaleak jartzea.

Hondakinen kudeaketan, gure helburua da birziklatze kota handienak bermatuko dituen sistema bat lortzea, aurreztetik eta berrerabilpenetik abiatuz, hau da, ahalik eta baliabide gutxien xahutzea, ahalik eta hondakin gutxien sortuz eta gaika bereiziz. Norabide horretan, konpromiso bat lortu dugu gizarte eragileen eta alderdi politikoen artean, ez bakarrik gaikako bilketa sistema aukeratzeko, etorkizunean elkarrekin lan egiteko ere bai, Arrasaten sistema iraunkor bat lortze aldera. Helburu komuna (denona) eta zintzoa lortze aldera talde lanean aritu izana nabarmendu behar dugu, beste helburu batzuk lortzeko jarraitu beharreko eredu baita.

Hortaz, datorren urtean bultzatu beharreko lehentasunak eta helburuak aipatu eta gero, saiatuko gara 2014ko aurrekontuko ezaugarri nagusiak gehiago garatzen. Horri buruz, ikusirik zer nolako eszenatokitan garatu behar den, komeni da esatea ez duela berritasun handirik, izan ere, lehengo muga berberak izango ditu. Hala, hauek ditugu:

- **Kontrako egoera ekonomikoa**, Debagoiengan nabarmen gaiztotu dena Fagor Electrodomésticos, S.Coop. itxi egingo dutela-eta; horrek eskatzen digu bizkor eta era koordinatuan jardutea administrazio guztiok eta inplikaturik dauden eragile ekonomikoek, ahalik eta agudoen enpleguaren susperraldi bat lortzen ahalegintzeko.

- Krisialdi ekonomiko horren ondorioz, **erabilgarri dugun marjina murrizta, udal fiskalitatea diru-sarrera handiagoak sortzeko tresna gisa erabiltzeko**, uste baitugu oraingo egoera ez dela egokiena igoerak edo aldaketa esanguratsuak planteatzeko, udaleko zerga presioan.

- **Muga** formalak (legezkoak-aurrekontu egonkortasuna) eta arazoaren mamikoak (prezioa, banketxeek eskainitako interes tipoak), eta horien aholkua ez da (ia galarazi egiten dute) **zorpetze bidea erabiltzea Udalak** bere jardueran rol "antizikliko" bat garatu ahal izateko (hau da, krisi garaian gastua inbertitu eta igotzea).

- **Diru-laguntzak apurka-apurka gutxitzea**, hainbat programa (Gizarte Ongizatea, Arrasate Musikal, eta abar) kofinantzatzeko beste administrazio batzuetatik azken urteotan Udalak jaso dituenak edo, baita ere, bere eskumenak garatzeko babes egokirik ez izana (GLL, Hezkuntzako inbertsioak, Egoitzak, eta abar) praktikan, galarazi edo, behintzat, zaildu egiten dutenak horiek egiteko erabilitako udal baliabideen zati baten liberazioa. Nahiz eta errepikakorrek izan gaitezkeen, arazo honi irtenbide egokia emateko, **ezinbestekoa da urgentziaz UDAL LEGEA onartzea**. Bien bitartean, "beste" administrazioek zer dioten haien borondate politikoaren esanetara gaude guztiz, baina udalentzat abantaila/desabantaila argi batekin (nondik begiratzen den), herritarraren hurbilen dagoen erakundera izanik, askoz ere



zailagoa da haien benetako arazoak eta kezkak albora uztea, eta horren ondorioz azkenean bereganatu egiten ditugu guri dagozkigunak eta beste administrazio batzuek era urrian edo desegokian ematen dituenak, nahiz eta ez izan gure eskumenekoak.

- 2014ko aurrekontuaren **diru-sarreraren** atalean aipagarriak diren **aspektu esanguratsu** moduan, aipatu dezakegu hiru kontzeptutan nabarmen igotzen direla kopuruak (batez ere oinarrian du 2013ko aurrekontuaren aldean duen gehikuntza), zehazki **ikuskatze zerbitzutik datozen diru-sarrera atipikoak edo bereziak (630 mila euro)**, Arrasateko Udalak iruzurraren aurka egin behar duen ahaleginarekin loturik dagoena, **udal finantzaketako foru funtsetik** datozen diru-sarreraren **igoera (620 mila euroan igotzen da)**, lotura duena aplikagarria den zerga araudian onartutako aldaketen ondorioz izan daitezkeen efektuekin, bai eta espero yugula jarduera ekonomikoak hobera egitea Gipuzkoan 2014ko ekitaldian eta, azkenik, **Diputazioaren diru-ekarpen espezifiko bat (958,2 mila euro) Takolo-Goiru bidezatiaren urbanizazio proiektua** egiteko, lehen aipatutako eskumen eskualdatze horren testuingurua, foru izatetik udal izatera, bide horren mantentze lanak egiteko.

- Dena den, albora utzita diru-sarrera atipiko edo berezi horiek, gainontzeko diru-sarrerak gehitzeko maniobra marjina murriztuta dago nabarmen eta, hortaz, **gastuetan jardutea baino ez dago**. Eraginkortasuna hobetzen saiatuko gara baliabide publikoak erabiltzean. Hori dela-eta 2014ko urterako berriro planteatu du Udalak **gastu arruntetan eusteko ahalegina** (I. Kap. – Pertsonal gastuak, II. Kap. – ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuen funtzionamendu gastuak eta IV. Kap. – Transferentzia arruntak, eta horietan daude, besteak beste, diru-laguntzak, zerbitzu mankomunatuaren kuotak eta erakunde autonomoen defizitak), **horrela aukera gehiago izango du Udalak inbertsioak egiteko**. Beste modu batean esanda, zorrotasun irizpide bat sartu nahi izan du Udalak, aurrezte lortzeko, maniobra marjina jakin bat zaintze aldera inbertsio proiektu batzuk (2014an hasteko, behintzat) aurrera eramateko, izan ere, horien exekuzioa atzeratu egin da nahi baino gehiago, kontrako egoera ekonomikoaren ondorioz. **Erronka** ez da erraza, **udal zerbitzuen oraingo eskaintza mantentzen baita, murrizketarik gabe, horien kalitateari nabarmen eragin gabe**. Azken batean, murrizketak izatea zehatzak eta ezinbestekoak eta, kasu guztietan, behar bezala lehenetsiak. Hortaz, justizia sozialeko irizpideak aplikatzea izango da, **gizarte egoera ahulenean dauden taldeen alde eginez eta haiek lehenetsiz**. Horixe izan da, zalantzarik gabe, 2014ko aurrekontuak izan duen oinarritzko printzipioetako bat.



2014ko aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak aipatu eta gero, aurtengo ekitaldirako aurreikusitako zenbatekoak erakutsiko ditugu, bai Udalarena bai erakunde autonomoena ere; hona hemen:

Udalaren aurrekontua	31.711.604,61 Euros
AUKEAren aurrekontua	1.621.715,11 Euros
Iturbide Egoitzaren aurrekontua	3.403.671,86 Euros

Aurrekontu Orokor finkatua edo hiru aurrekontuak batuta, barne transferentziak kenduta (defizita estaltzeko ekarpenak, eta Udalaren fakturazioak, erakunde autonomoei ur eta zabor zerbitzuak egiteagatik) kopuru hauxe dugu, **35.529.104,61 €**.

Zenbateko horiek alderatuz gero 2013rako onartutako aurrekontuaren kopuruekin, koadro hau ikusi dezakegu:

ERAKUNDEA	AURREK 2013	AURREK 2014	ALDAERA	2013/2012
Udala	29.809,89	31.711,60	+1.901,72	6,38%
Aukea	1.668,26	1.621,72	-46,54	-2,79%
Iturbide	3.409,39	3.403,67	-5,72	-0,17%
Aurrek. Orok.	33.569,10	35.529,10	+1.960,00	5,84%

(Mila eurotan adierazitako kopuruak)

Egiaztatu daiteke azken urteotako joera hautsi dela 2014ko urtean, izan ere, kontrako egoera ekonomikoaren ondorioz, Udalaren beraren aurrekontuak murrizketak izan ditu behin eta berriro. Aurtengo aurrekontu honetan, mailegu berrietarako aurreikusitako zenbatekoaren murrizketa “teorikoa” gorabehera (2013ko aurrekontuak 2,26 milioi euroko zenbatekoa jaso zuen eta 2014ko aurrekontuak 1,22 milioi euroko mailegu bat du aurreikusita), aurreikusitako dago %6,38 diru-sarrera gehiago edukitzea, udaleko gastuaren finantzaketa aurrera eraman ahal izateko. Baina gehikuntza hori ez da ematen erakunde autonomoen aurrekontuetan; Iturbiden izoztu egin da (2013koaren antzekoa) eta Aukean %2,79ren doitzea, eta hori gertatu da 2014an lortu nahi duelako hobetzea eraginkortasunean (berrantolaketak, kontratuak berraztertzea, eta abar).

Orain eta hemen, Udalaren aurrekontuaren gastuen eta diru-sarreraren kontu-sail nagusiak aztertuko ditugu zehatzago, eta AUKEA eta ITURBIDE erakunde autonomoetako aurrekontuak erakundeek eurek idatzitako memorieta datoz azterturik, agiri honetan bertan.



Gastuen atalean, Udalaren aurrekontua aztertzen hasiko gara.

GASTUEN AURREKONTUA - 2014

2014ko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 31.711.604,61 euro, eta %6,38ko igoera du 2013ko aurrekontuaren aldean.

Aurreko ekitaldiari buruz 2014 aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa aztertu ondoren, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2014KO AURREK. - 2013KO HASIER. AURREK.

Kapitulua	AURR. 2014	% G	AURR. 2013	% G	Aldea	14/13
I I Pertsonal gastuak	9.566,2	30,17%	9.201,3	30,87%	364,9	3,97%
II Ondasunak eta zerbitz.	9.767,2	30,80%	8.813,1	29,56%	954,0	10,83%
III Interesak	64,5	0,20%	86,3	0,29%	-21,8	-25,26%
IV Transferen. arruntak	5.799,5	18,29%	5.704,8	19,14%	94,7	1,66%
VI Inbertsioak	4.373,3	13,79%	2.699,9	9,06%	1.673,4	61,98%
VII Kapital transferentz.	820	2,59%	785	2,63%	35	4,46%
VIII Finan. akt. aldak.	265	0,84%	209,3	0,70%	55,7	26,61%
IX Maileg. amortizazioa	1.055,9	3,33%	2310,1	7,75%	-1.254,3	-54,29%
GUZTIRA	31.711,6	100%	29.809,8	100%	1.901,7	6,38%

(Mila eurotan adierazitako kopuruak)

Koadro hau aztertu eta ikusi dezakegu, ehunekoetan, Udalaren gastu osoaren aldean, handitu egiten dela kapital gastuaren garrantzi espezifikoa, gastu arruntaren garrantziaren alde; horrek erakusten du maileguetatik datorren zamaren aurrezpena erabili ahal izan dela inbertsioen finantzazioan. Horrela, ikus dezakegu:

- Mantendu egiten dugu gastu arruntaren garrantzia, 2013koaren aldean, eta dena kontuan izanik, gastuen I., II. eta IV. kapituluak, izan ere, %79,57 izatetik %79,26 izatera pasatu da, ekitaldiko gastu osoari buruz.

- Kapital eragiketen garrantzia handitu da, VI. Kap., inbertsioak eta VII. Kap., kapital transferentziak eta VIII. Kap. – Finantza Aktiboen Aldaketa %4,83 (gastu osoaren %12,39 izatetik %17,22 izatera pasatu da).

- Finantza kargaren garrantzia txikitu da (-4,51), eta gastu osoaren %8,04tik %3,53 izatera pasatu da, zorpetzeari eusteko ahaleginaren ondorioz eta 2009ko foru funtsaren saldo negatiboaren itzulketa bukatu delako.



Azken batean, azken urteen aldean joera aldaketa jakin bat gertatu da 2014an, kapital eragiketen garrantzia handitzean (inbertsio proiektuak), eta zorpetze txikiagoaren ondorioz sortutako aurrezkiak erabiliko dira hor.

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen Udalak 2014an:

- **30,17 €** erabili dugu **pertsonal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira Udalean egitekoak betetzeko liberaturik dauden udalkideen ordainketak.

- **30,80 €** behar dugu **udal zerbitzuen funtzionamendutik** sortzen diren gastu arruntei erantzuteko.

- **3,53 €** dira **banketxeekin** hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguen interesak eta amortizazioak**).

- **18,29 €** dira **transferentzia arruntak edo diru-laguntzak** finantzatzeko; horietatik **11,30 euro** dira udalen arteko zerbitzuen kuotak, AUKEAren eta Iturbide Egoitzaren defizitak (azken horiek berez udal zerbitzuak dira).

- **13,79 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.


- **2,59 €** dira **beste administrazio edo erakunde batzuek** egindako **inbertsioak** diruz lagundu edo **elkarrekin** finantzatzeko.

- **0,84 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola, **langileei aurrerakin itzulgarriak emateko** (diru-sarreraren kopuru berdina) eta **Garaia S.Coop.ren kapitalari ekarpena egiteko**.


Honekin batera doazen grafikoetan 2014ko gastuen aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa ikusi dezakegu, 2013ko aurrekontuaren aldean, eta 2013ko gastuaren portzentaje banaketa ere bai, kapitulu ekonomikoko sailkapenaren arabera.



2013 ETA 2014KO AURREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA KAPITULUZ-KAPITULU



GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU -2014KO AURREKONTUA



Orain aipatuko ditugu gastuen aldaera nagusiak eta 2014ko aurrekontuaren berritasun aipagarrienak, 2013ko ekitaldiko kopuruen aldean, sailkapen ekonomikoaren eta gastuaren izaeraren arabera.



LEHEN KAPITULUA – LANGILEEN GASTUAK - 9.566.191,98 euro

%3,97ko igoera du, 2013ko aurrekontuaren kopuruaren aldean.

Kapitulu honetan sailez saileko banakako kalkuluak egin dira langile gehiago kontuan hartu gabe, oinarrian harturik oraingo plantila eta urtean indarrean dauden ordainketak, 2014rako Estatuko aurrekontu orokorretan jasotako terminoen arabera.

Igoera (+365 mila euro) oinarritzen da, batez ere, enplegua sustatzeko programetarako aurreikusitako langile kontratazioetan (-313,3 mila euro 2013ko diru-kopuruaren aldean), Diputazioak babesturik (10 kontratu) eta Lanbidek (13 kontratu) eta beste administrazio batzuek (koltxoi bat utzi dugu beste kontratazio batzuk egiteko, 117,8 mila euroko udal aportazio garbi batekin). Gehitzeko beste arrazoia dator udaltzaingotik (+86,7 mila euro), azokan lan osagarriak egiteko (baja ordezkapenak) eta garabi zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa ahalbidetzeko, udaltzain berri bat kontratatzearen ondorioz.

Lanpostu baten amortizazioa aurreikusten dugu 2014rako, titularraren erretiroagatik, eta, halaber, jasota dago udal plantilako lanpostuen lan kargak aztertzen jarraitzea, kontratazio berriak egin aurretik, ulertzen baitu udalak garrantzitsua dela, are gehiago oraingo egoera ekonomikoan, sobera izan daitezkeenak antzematea eta antolaketa egokitzapenak egitea, udal baliabideak arrazionalizatu eta hobetze aldera, hori guztia herritarrari une honetan ematen zaizkion zerbitzuen iraunkortasuna bermatzeko.

BIGARREN KAPITULUA - ONDASUN ETA ZERBITZU ARRUNTAK EROSTEA - 9.767.155,15 euro

Igotzen da %10,82, 2013ko aurrekontuaren aldean. Kapitulu honetako aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, irizpide hauek erabili ditugu:

- **Oraingo zerbitzu eskaintza mantentzea**, aldaketa esanguratsurik gabe.

- Kapitulu honetan sartzea 1 gunean (Uribarri-Loramendi) **ibilgailuen aparkaleku arautua kontrolatzeko zerbitzuaren kontratu berrirako behar diren kredituak**, GERTEK, Sociedad de Gestión y Servicios SA enpresarekin sinatua 67.080,48 euroan, Udal Plenoak 2013ko irailaren 24an onartutako adjudikazioaren arabera. Halaber, kontu-sail horretan aurrekontuko diru-kopuru osagarri bat jasotzen da, 2014ko bukaeran, oraingo kontratuaren esperientzia baloratu eta gero, TAO sistema erdialdean hasi/zabaltzeko.

- **Zerga ikuskatzeko lanen enpresa aholkulariaren ordainsariak egiteko den kontu-sailaren eragin aipagarria**, antzemandako iruzurraren tamainarekin zuzenean lotutako lanak. 2014ko urterako **350.000 euroko** diru-kopuru bat jaso dugu (2013koaren aldean -340 mila euro gehiago), eta arrazoi nagusienetako bat da 2014ko aurrekontuan kapitulu hau igotzeko.

- **Funts izaerako kontu-sail bat sortzea, enplegua sortu dezaketen jarduerak finantzatzeko dena, 350.000 euroko diru-kopuru batekin**; horren zertarakoa



(kontratazioak, prestakuntza ikastaroak, diru-laguntzak, pabiloiak eta azpiegiturak ematea, eta abar) aztertu egin beharko da Enplegu Batzordean.

- **Kontu-sail berri batzuen eragina**, hala nola, lurrazpiko edukiontziak konpontzea (mantentze kontratua eta konponketa kostua), 78.000 euroan, Plan Orokorra zabaldu eta eztabaidatzeari buruz egin beharreko ekintzak (30 mila euro), kalitate sailarekin lotutako jarduerak (15 mila euro), besteak beste, erakundearen kanpo-itxurari buruzko eskuliburua eguneratu beharra, Bixente Barandiaran “errementaria”ren obraren erakusketa (20 mila euro), denak batera **143 mila euroko gastu berria egiten dutenak**.

- **Egokitzapena borondatezko gastuetan**, batez ere eragiten diena batzordeen jardueren kontu-sailari, guztira 954 mila euro kopuruarekin, eta 2013ko urtearen aldean gutxi gorabehera %5eko murrizketa du.

- **Dauden kontratuetan** (eraikinen garbiketa, lorategiak, bide garbiketa, garraio publikoa, garabi zerbitzua, ludotekak eta gazte txokoak, eta abar moduko zerbitzu azpikontratatuak), kapitulu honetako zatirik garrantzitsuena osatzen duen eta 3,53 milioi euro baino gehiago egiten duena, horietatik datozen zenbateko eta obligazio ekonomikoak jaso ditugu, dagozkien prezio berrazterketekin. Edozelan ere, atal honek azterketa berezia izan du aurrekontu agiria egin bitartean, izan ere, **saihestezina da produktibitate eta efizientzia hobetzeko saiatzea, horiek dakarten zama ekonomikoa aritze aldera**. Hala, beste gai batzuen artean, udaleko bulegoak eta eraikinak garbitzeko kontratuaren maiztasunak berraztertzen jarraituko dugu, udal lorategien mantentze kontratua arautzen duen agirian aldaketak sartu ditugu, eta horien bidez aurreztea lortu dezakegu. Azken batean, beharrezkoa da udal jarduera etengabe aztertzea, Udalak ezarritako gastu lehentasunei egoki erantzuten dioten baloratzeko.

- Gizarte Ongizateko sailaren programetan, hala nola, **Etxeko Laguntza Zerbitzu azpikontratatua eta babesgabetasun egoerei buruzko aholkularitza zerbitzua**, 2014ko aurrekontuaren diru-kopurua irizpide errealista batez kalkulatu dugu, **oinarrian harturik oraingo eskari maila eta izan litekeen eboluzioa**, eta emaitza da 2012ko aurrekontuan baino zenbateko txikiagoa. Edozelan ere, udalak konpromisoa hartzen du aurrekontua gutxitze horrek kasu batean ere ez duela ekarriko herritarrek planteatu ditzaketan eskariei ez erantzutea. Hau da, aurrekontuko aurreikuspenak baino benetako eskari gehiago izanez gero, eragindako kontu-sailak handitu egingo lirarteke, kredituak aldatzeko dagokion espedientearen bidez.

HIRUGARREN KAPITULUA - MAILEGUEN INTERESAK - 64.475,93 euro


2013ko aurrekontuaren aldean, %25,3ko jaitsiera du.

Arrazoia da interes tipoa historikoki baxuak izan diren mailetan egonkortu dela (urte osoan hiruhileko euriborra %0,25etik behera ibili da) eta zorra murriztu dela, zorpetze berririk gabe maileguen amortizazioaren ondorioz.



2014ko aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, erreferentzia zuhaur bat erabili dugu, zehazki %0,75eko interes tipo bat, eta horri gero kontratu bakoitzari aplikatu dakioken diferentziala gehitu behar diogu. Mailegu gehienak interes tipo aldakorrean sinaturik daude (KUTXAren mailegu bat izan ezik, %4,07ko tipoaz kontraturik dagoena), hiruhileko Euribor erreferentziaz. Kontuan hartzen badugu azken erreferentzia ezaguna, 2013/12/2an, %0,236koa dela, aurrekontu aurreikuspenak %0,5 inguruko koltxoia du interes tipoan.

Honekin batera doan grafikoan ikusi dezakegu hiruhileko EURIBOR erreferentziak izandako eboluzioa (2000ra arte erreferentzia da MIBOR) 1991-2013ko abenduaren aldiaren, eta hor egiaztatuko dugu maila baxuetan egonkortu dela 2009tik aurrera, are gehiago azken 2 urteotan.



(*) 1991-1999 aldiko datuak hiruhileko MIBOR erreferentziari dagozkie.

Bestalde, aurreko aurrekontuan adierazitakoa errepikatu behar dugu, hau da, 2014ko ekitaldian ez dugu espero banketxeek eskainitako maileguen finantza baldintzak hobetzea; hortaz, zorpetzearen prezioak (Euriborra + 5 edo 6 puntu ehunekotan) atzera eragiten du kontratu berriak formalizatzeko, hori guztiak kontuan izanik legezko mugak daudela, egonkortasun eszenatokiak izatera behartzen dituztenak eta zorpetzea ez gehitzera administrazio publiko ia guztiak, berdin diolarik zein finantza osasuna bizi duzun.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 5. 799.554,77 euro.

Kapitulu honetan 2013an jarritako zenbatekoa %1,66n gehitu da.

Kapitulu honen alderdi aipagarri moduan hauek aipatu ditzakegu:



- Udalen arteko zerbitzuen kuotak, **2.597.286,91 euro direnak**, %7,7 **gehitu** dira, hasieran onartutako 2013ko aurrekontuko diru-kopuruen aldean. Igoera horren arrazoi nagusiak Hiri Zaborrak Biltzeko Zerbitzutik datoz, izan ere, %9,5 hazi dira udalaren ekarpenak, “atez ate”ko bilketa sistema apurka-apurka ezartzeko behar diren lanen ondorioz, eta Enplegu sailarenak (enplegua eta garapen agentzia), %80ko gehikuntzarekin. Kuota igoera horiek ezin izan ditugu konpentsatu beste zerbitzu batzuen kostuak gutxituz (elbarrien garraioa, foru finantzaketa izango baitute).

- **Aukea erakunde autonomoan aurreikusitako defizita apur bat** (-20,9 mila euro), zerbitzuen funtzionamendu gastuetan eraginkortasuna hobetzearen ondorioz eta diru-sarrerak parametro normalizatuagoetara egitea, igerilekuetako instalazioak itxi izanarekin abonudunetan eta erabiltzaileetan izandako gorabeherak konpondu eta gero.

Defizita orekatzeko udal ekarpena da 890.615,11 euro, beste modu baten esanda, esan gura du jardueratik edo kirol eraikinetako erabiltzaileengandik datozen diru-sarrerak (kuotak, sarrerak, ikastaroak, eta abar) ez direla nahikoak horietan sortzen diren gastuen %41 estali edo finantzatzeko (diru-laguntzak deskontaturik, horiek erantzuten baitiete udaleko kirol politikako irizpideei).

- **Iturbide Egoitzan sortutako defizita nabarmen gutxitzea** (-84,2 mila euro, ▼%29,56). Defizita gutxitzearen arrazoi nagusia da Aldundiak ordaindu beharreko hitzarmeneko tarifa eguneratzeak seguruenik ekarriko dituen diru-sarrerak igotzea, 2013rako hitzartuta (%1,4) eta horri gehitu behar zaio 2014rako eguneratze estimatua (%1,4). Hitzarmen tarifa horiek Iturbide plaza ia gehienetan aplikatzekoak dira.

Edozelan ere, hobekuntza horrekin ez dugu ahaztu behar defizita dugula, nahiz eta txikiagoa izan. Egoera guztiz irregularra da, izan ere, Arrasateko Udalak, bere erakunde autonomoa Iturbide Egoitzaren bidez, zerbitzu bat ematen jarraitzen du, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, 2008-12-25etik foru erakundeari zegokion (lege horren bigarren xedapen iragankorraren arabera, gehienez ere urte bateko epean praktikan jartzeko eskumenen banaketa berria, hau da, gehienez ere 2009/12/15ean). Ez ditu horiek betetzen eta gainera errealitatea da Foru Aldundiak bere aldetik finkatzen dituela “hitzarmen” prezio batzuk egoitzadun plaza bakoitzeko, teoriarik, baina, kostu guztiak finantzatu behar ditu (zuzenekoak, zeharkakoak, amortizazioak, eta abar.) eta, hala ere, Iturbiderentzat (gaur arte ez zaio detektatu eraginkortasun gabezia aipagarriarik) ez dira nahiko, zuzeneko gastu arruntak estaltzeko ere ez baitira iristen.

- **Gizarte Larrialdietako Laguntzak finantzatzeko diren baliabideak igotzea (+50 mila euro), larrialdietako laguntzen funts propiorako beste igoera batez gain (+10 mila euro)** (Eusko Jaurlaritzak erregulatutako GLLen laguntzak lortzeko baldintzak betetzen ez dituzten egoera urgenteak estaltzeko direnak). Memoriaren hasieran adierazi bezala, 2014rako aurreikuspenak oinarria du 2013ko datu errealetik abiatutako eskariaren estimazioan eta seguruenik Fagor Electrodomésticos, S.Coop. itxiko dutela-eta sortutako egoera berriaren estimazioan, baina, gainera, kontuan izan behar dugu aurrekontuko diru-kopurua ez dela izango arrazoi laguntza ez onartzeko, izan ere, borondate politikoa da, gaur arte bezala, aplikagarria den legezko esparruan erregulatutako laguntza kasuen artean dauden eskari guztiak. Azken batean, udaleko gobernu taldearen borondate politikoa da argia eta, onartutako esleipena ez bada nahikoa eskariei erantzuteko, fondo gehigarriak jarriko dira.



Puntu honetan aurreko ekitaldietan adierazitako hausnarketa errepikatzeak omeni da, gastuen lehentasunen eztabaida honen berri emateko Eusko Jaurlaritzari, uste baitu Udalak leku horretan bai Eusko Jaurlaritzak bai oposizioak ahalegin bat egin behar dute aurrekontuan, programa honi esleitutako diru-kopurua nabarmen handitzeko, gizarte-egoera ahulena duten taldeen arazo larriak konpontzeko dena. Ez du zentzurik udalek, bitartekari “rol” batekin edo eskaeren tramitatzailerik hutsa izanik, emandako laguntzen 2/3ak finantzatzea eta Eusko Jaurlaritzak, teoriarik laguntzak osorik bere gain hartu beharko lituzkeena, horien 1/3 (herena) bakarrik ordaintzea.

- Oro ohar, salbuespenak salbuespen, **diru-laguntza programak mantendu ditu Udalak** bai eta **2013an indarrean** egon diren izendun diru-laguntzak ere (Arrasate Musikal, Goiena, Euskal Fonda, eta abar), iazko antzeko diru-kopuruez. Kasu guztietan, diru-laguntza programak finantzatzeko **aurrekontuan jarritako baliabideak dira 1,40 milioi euro.**

- Halaber, **udaleko talde politikoei ordaindu beharreko diru-kopuruak eta kontzeptuak mantentzen ditugu** (taldekoak, zinegotzi kopuruaren arabekoak eta bileretara etortzearen arabekoak), 2014rako aldaketarik izan gabe.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK - 4.373.311,49 euro.

%61,98 igotzea da (1,53 milioi euro gehiago), 2013ko aurrekontuan kapitulu honi esleitutako kopuruari buruz.

Kapitulu honetako portzentaje garrantziak nekez gainditzen du gastu osoaren %13,5 eta oso urrun dago 2005-2010 aldirian erabilitako kopuruetatik, urtean 11-15 milioiko tarte batean mugitzen baitziren. Hortaz, inbertsio proiektuak dira azken urteotan izandako aurrekontu murrizketen kaltetu nagusiak. Horren jakitun eta kontuan izanik ez dela komeni denbora gehiagorik atzeratzea proiektu jakin batzuen exekuzioa, aurrekontu berrirako bilatu dugun helburuetako bat izan da, gastu arruntari eutsiz, maniobra marjina bat lortzea, inbertsio jakin batzuk hasi ahal izateko. Helburu horrek, exekuzioaren periodifikatze egoki batekin osaturik, ekarriko digu, urte anitzeko konpromisoak onartzuz, neurri handiko proiektu batzuk exekutatzeko, hala nola, Udala auzoko urbanizazioaren 2. eta 3. faseak, Zarugalde kalean mendi-hegalei eusteko proiektua, Goiru-Takolo urbanizazioa, Azokako inbertsioak (irigarritasuna-igogailua), alde zaharrean termitekin aurkako jarduera plana, udal artxiboa, San Josepe berriro urbanizatzea, Zalduspe-Osinaga zubian konponketak egitea, San Kristobal hilerrian inbertsioak egitea, besteak beste.

Halaber, aurreko urteetan bezala, proposatzen dugu aurrekontuan zabalik uztea, aurrekontuak betetzeko arauen bidez, sinatu beharreko kredituen edo maileguen zenbatekoa milioi bat euroan handitzeko aukera, azkartasunez erantzuteko inbertsio proiektuetan Udalarik egokitu dakizkiokeen konpromisoei, betiere diru-laguntza portzentajea bada inbertsioaren kostu osoaren %40koa edo handiagoa.

Azkenik, xehetasun handiago batez, 2014an hasi behar ditugun jarduera nagusietako baten batzuk deskribatuko ditugu, zehazki hauek:



- **Zerrajerako Erlojuaren eraikin zaharra berritzea**, 231.000 euroko diru-kopuru batekin, horren bidez Alaya Taldea SLPk idatzitako jarduera proiektuaren obren 2. fasea egin nahi dugu; helburua zen eraikineko egokitzapen obrak egitea, eraikin horretan zeuden kultura entitateek egiten dituzten jarduerak legezatu ahal izateko, 180.000 euro inguruko aurrekontu batekin. Halaber, lehen solairuko leihoak aldatu eta egokitzeko lanak egingo ditugu, 34.000 euroko aurrekontu estimatu batekin, eta eraikineko teiltuan segurtasun neurriak jartzeko lanak, 18.000 euro inguruko aurrekontu batekin.

- **Gizarte Zerbitzuetako bulegoaren inbertsioa, 208.000 euro, eta Gizarte Zerbitzuetako bulego berrietako altzariak, 52.000 euro.** Tokiko Gobernu Batzarrak 2013/07/01ean Construcciones Moyua, SA enpresari adjudikatutako obrek osatzen dute finantzaketa, guztira 551.178,05 euroko zenbatekoa. Zenbateko horri 2014ko ekitaldiari egotzi dakizkikeen obra zuzendaritzako lanen zati bat gehitu behar zaio, bai eta hargune elektrikoko obra jakin batzuk ere. Obrak bukatutakoan, hartarako deitutako lehiaketa egin eta bero, altzariak hornitzeko zeregina etorriko da, eta bulego berriak gutxi gorabehera prest egongo dira erabiltzeko urtearen lauhilekoaren bukaera aldera.

- **Udal artxiboa**, EBROTEC, Estudios y Proyectos SL enpresak egindako proiektuaren arabera, helburua izanik Markuleteko 18. pabiloia egokitzea administrazio agiriak gorde eta artxibatuzeko. Obra eta instalazioen proiektua 276.490,93 eurokoa da, eta 2014ko ekitaldian egingo du Udalak, eta armairuak eta altzariak hornitzea faltako da, une honetan haien kostua oraindik kuantifikaturik gabe, 2014ko eta 2015eko aurrekontuetan egiteko.

- **San Josepe berriro urbanizatzea**, LKS Ingenieria S.Coop.ak idatzi eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko maiatzaren 14an onartutako proiektuaren arabera, 2.515.000 €ko aurrekontu batekin. Proiektuaren helburua da eremu horri ematea berriro urbanizatzearen kalitate bat eta zerbitzuak eramatea udalerriko beste eremu batzuetara, gune publikoa bihurtuz, zirkulazioaren eta oinezkoen mugikortasuna nabarmen hobetuz. Horren tamaina ekonomikoa ikusirik, fase edo zatika exekutatu beharra dago nahitaez. 2014ko ekitaldirako, 2014ko eta 2015eko urte anitzeko izaerarekin, obren lehen fasea exekutatu dugu, 415.000 euro inguruko aurrekontu batekin, pitzadurak konpontzeko eta inguruko sarbidean segurtasuna hobetzeko obrak hasteko.

Bestalde, adierazi behar dugu 2013ko ekitaldiaren itxiera testuinguruan soberakinak lortu ditzakegula, eta horiek gastu berrietarako erabili ditzakegula. Horri buruz, soberakin horiek baieztatuz gero (2013ko aurrekontuaren likidazioa egin eta gero 2014ko martxoan), horiek erabiliko ditugu, lehenetsiz (aukerak aztertu eta 2014ko aurrekontuetan aurreikusitako zorpetze berriari uko egitea komeni den edo ez aztertu eta gero) San Josepeko urbanizazio proiektuetako, Zarugaldeko mendi-hegalei eusteko eta Udalako urbanizazioko diru-izendapenak osatzeko; horrela, ahal den neurrian, 2015eko ekitaldira eramandako konpromisoen zati bat arinduko dugu.

- **Zarugaldeko mendi-hegalei eustea, 250.000 euro.** Tokiko Gobernu Batzarraren akordioz, 2013/4/15ean, A-GATEIN Ingeniería SLP enpresa adjudikaturik Zarugalde kaleko 44 eta 46 atarteetako atzealdean ezponda egonkortzeko proiektua idaztea, hainbat arazo tarteko atzeratu egin da proiektu hori egitea, nahi zeta gaurko egunez ia bukatuta egon. Hura exekutatzeari ekin baino lehen, pentsatzen dugu hainbat gestio egin beharko dugula lursailen erabilgarritasuna lortzeko. Horregatik, urte anitzeko proiektu baten gisa hartu dugu, 2014-



2015ean egitekoa, nahiz eta horren urgentzia edo presa ikusirik, segurtasun beharrei erantzuten baitie, saiaturako gara osorik bukatzen aurtan bertan. Horretarako, lehenago ere adierazi bezala, lehenesten dugun horietako bat da proiektua, diru-izendapen osagarriak jaso baititzakegu, 2013ko itxieran soberakinak lortuz gero.

- **Udala auzoko urbanizazioa, 75.000 euro.** Urte anitzeko izaera duen kontu-saila, 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldietan finantzatzekoa, hurrenez hurren, 175.000 €, 75.000 € eta 450.000 €ko aurrekontu izendapenekin. Udala auzoko Plan Bereziko obren 2. eta 3. faseari ekin nahi diogu; horren exekuzioa lankidetzan egiten ari gara, auzoko bizilagunen diru-ekarpenez eta ordainez (batzuk dagoenak eginda daude eta beste batzuk egiteko, araudian emandako hirigintza aprobetxamendua gauzatzearen arabera). Obren gutxi gorabeherako aurrekontua da 700 mila euro, eta kontratazio prozeduraren bidez kostua nabarmen murriztea lortu genezake. Edozelan ere, 2014ko diru-izendapena gehitu egin genezake soberakinak egonez gero 2013ko itxieran, eta horrela arindu hurrengo aurrekontuaren karga.

- **TAKOLO-GOIRU ibilbidea – 958.204,49 euro.** Olandixoko tunelaren saihezbidea egin eta gero, GI-2620 errepedeak trazatua aldatu du eta, horren ondorioz, saihezbidea Aldundiaren eskumena izatera pasatu da eta, alde bien artean sinatu beharreko akordioa edo hitzarmena egin eta gero, oraingo bidezatiak ibilbide edo kalea izatera pasatuko litzateke, Udalaren eskumenekoa. Horregatik, eskumenak eskualdatu baino lehen, hainbat obra egin beharko litzateke, eskumenak eskualdatzeko unean kontserbazio egoera egokia bermatze aldera. Edozelan ere, udalean Goiru-Takolo eremu horretan jardutea jasotzen duen proiektu bat aztertu eta idazteko fasean gaudenez, ez du zentzu handirik Aldundiak exekutatzeko obrarik une honetan. Lortutako akordioak, dagokion hitzarmenean berretsi beharko dena, Aldundiak egin beharreko obraren ordezkari kopuru baten ekarpena egitea jasotzen du, hasiera batean 958.204,49 euro, baldintza batekin, ibilbide horretako obretarako bakarrik erabiltzea diru-kopuru hori.

Hortaz, 2014rako, gastuen kontu-sail bat sortu dugu, foru ekarpenaren kopuru berekoa, erabiliko duguna Asmatu SL kabinete teknikoari enkargatu zaion proiektua onartu eta gero, eta hartarako izapidetutako lehiaketaren ostean obretako faseak adjudikatu eta gero.

- **Bidegorriko bidezatiak egokitzea – 60.000 euro.** Horretarako dagoen 2013ko diru-izendapena osatzen du, 30 mila euro. Anboto kaleko atzealdeko obrak egin nahi ditugu, bai eta beste jarduera batzuk ere, bidegorriaren beste bidezati batzuk osatzeko, horrela udalerrian mugikortasun eraginkorra sustatu eta hura lortu dadin laguntzeko.

- **Hezkuntzako inbertsioak, 140.000 euroko diru-izendapen batekin,** Arrasate herri eskolako (Musakola, Bedoñabe eta Erguin) eskoletan egin beharreko lanak finantzatzeko direnak, Eusko Jaurlaritza diruz lagundu ditzakeelako ustea baitago (eskumenez inbertsioen %100 finantzatu beharko luke), gutxi gorabehera 80.000 euroko zenbatekoaz (2013an egindako inbertsioengatik diru-laguntzak ere sartu beharko lirateke).

- **Ordain-sari Teknikoak.** 65.000 euroko dotazioaz, azpikontratatu beharreko zenbait proiektuen finantzaziorako erabiliko dena. Horien artean, Zerbitzu eta Hirigintza sailetik proposatutako proiektuez gain, aurrekontuei buruzko udal talde politikoen negoziazioen testuinguruan planteatu dira beste proiektu batzuk (herriaren garbiketa eta Hartarako udal



ordenantzak egitea, euriaz babesteko esparru publikoen estaldurari buruzko azterketa eta Kaskonategiko eremua bus geltokirako proiektua berreskuratzea)

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 820.045,88 euro

%4,46ko igoera du, 2013ko aurrekontuaren kopuruaren aldean.

Ia aldaketarik gabe 2013ko aurrekontuko kontu-sailei eta zenbatekoei buruz, berritasun moduan hau bakarrik jasotzen du, erabilera publikoko zortasuna duten titularitate pribatuko guneetan urbanizazioak hobetzeko jarduera jakin bat diruz laguntzeko hartu zuen konpromisoa, 11.664 euroan, bai eta hainbat udaleko jardutea ere Murugain eremuan, printzipioz Aramaioko Udalak koordinatuko duena, 8.000 euroan.

Kapitulu honen barruan, eragin ekonomiko berezia dutelako, kontu-sail hauek azpimarratu behar ditugu:

- Mankomunitatearen inbertsioak finantzatzeko den kontu-saila, 272.259,38 euroko diru-izendapen batekin. Zenbateko hori batez ere (%92,5) erabiliko dugu hiri hondakinen bilketa zerbitzuekin eta bilketa bereziekin, hiri hondakinak biltzeko “atez ate”ko sistema abian jartzearekin lotutako inbertsioak egiteko.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoa SAk egin behar dituen inbertsioak finantzatzeko den udalaren ekarpena, 474.000 euroko zenbatekoa. Gai horretan, iaz esandako errepikatuko dugu, administrazio gehienetan aurrekontu zailtasunen inguruan orain dugun testuinguruan, inbertsio erritmoa benetako finantza gaitasunei egokitzeko beharra dugu, ez bakarrik udaletan udalez kanpoko erakundeetan ere bai, lehenetasunen eztabaida benetan gertatu dadin, aurretiatzko kargarik gabe, itxuraz “mugiezina” dena.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 265.001 euro

Garrantzi ekonomiko urria du, eta jasotzen ditu langileen aurrerakinak finantzatzeko diren aurrekontu kredituak; horiek dute beste kontu-saila bat diru-sarreretan. Hala ere, 2011tik aurrera sartu behar da Garaia, S.Coop.ren kapitalarendako ekarpenari dagokion zatia, zenbateko osoa dena 756.400 euro (159.950,74 euro 2010eko aurrekontuaren kontura eta gainerakoa 2011-2015 aldiko aurrekontuen kontura, urteko ekarpena 119.289,85 euro), 2010/10/7an osoko bilkuran hartutako akordioaren bidez hartutako urte anitzeko konpromisoaren terminoen arabera, hau da, Garaia Poligonoan egiten dituzten proiektu berrietatik datozen eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zerga dela-eta baliabideak lortzen badira.

Hala ere, 2013an hainbat aldaketa izan dugu Garaia S.Coop. mugitzen den eszenatokian, egin beharreko diru ekarpenean eraginez. Batetik, Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erakunde horrek izan duen salbuespena kendu izanaren ondorioz, udal zerga berriak sortzea ekarri duelarik 2013an, 165.171 €ko zenbatekoa, eta bizi dituen zailtasun ekonomikoak direla-eta Udalak ordaintzeko dituen kapitalerako ekarpenen bidez konpentsatuko dira. Horregatik, hiri OHZren bidez ekarpen/konpentsazioaren estimazioa da 2014an 175.000 eurokoa. Bestalde, azken 2 urteotan nekez sortu da diru-sarrerarik eraikuntzen gaineko zergan, Garaia eremuari



dagokionez, eta zentzuzkoa da aurrekontuan jasotzea bai diru-sarrerak bai zerga horren ondorioz datozen ekarpenak, euro bateko diru-izendapenarekin, handitu egin daitekeena.

Azkenik, euro bateko kontu-sail bat utzi dugu zabalik, bai gastuetan bai diru-sarreretan, 2014ko ekaineko eta abenduko ordainketa berezien aurrerakin gisa, urtarrilean eta ekainean kobratzekoak, hurrenez hurren, osoko bilkuran hartutako akordioz onartutako aukeraren arabera, 20/2012 Errege Lege-Dekretuak, uztailaren 13koa, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko neurriei eta lehiakortasuna sustatzeari buruzkoa, ezartzen zuena 2012ko abenduaren ordainketa berezia kentzea.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 1.055.868,41 euro

%54,29 jaitsi da, 2013ko aurrekontuko kopuruei buruz.

Kapitulu honetako finantza kargak kalkulatzeko, udalak estimatu du 2014ko aurrekontuetan aurreikusitako maileguak (edo azkenean kontratatzen dena) ez duela behar izango ordainketarik hurrengo ekitaldian, uste baitugu Udalak ez duela erabiliko ezelako konpururik. Estimazio hori egiteko arrazoia da 2014an sinatu beharreko mailegu berrien aurrekontu aurreikuspenaren izaera “teorikoa”, ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren koadratze formal egiteko hondar baliabide moduan erabilia, benetan espero dugunean lortzea nahiko baliabide 2013ko itxieratik, zorpetze hori beharrezko ez egiteko Kasu guztietan, ez dugu espero 2014an diruzaintza tentsiorik egotea, ez eta mailegu berriak kontratatzea eta erabiltzea beharrezko egiten duen finantza desfaserik ere.

2013ko urtearen aldean kapituluko kopurua jaistea azaltzen duen arrazoi nagusia da bukatu egin dela Foru Aldundiari itzultzea 2009ko urteari dagokion Udal Finantzaketako Foru Funttsaren saldo negatiboaren zatia, 3.077.493,19 €ko zenbateko osoa, 2011, 2012 eta 2013ko urteetan egindakoa. Azken batean, 2014an ez dago kargarik, urtean 1,025 milioi euroko kargarik.

2013ko aurrekontuaren exekuzioak, zorpetzearen ikuspegitik, erakutsi digu ez dugula behar izan mailegu berririk (nahiz eta “teorian” aurreikusita egon kreditu berri bat, 2,26 milioi eruokoa) eta, bestalde, banketxeekin kontratatutako kredituengatik dugun zorraren zenbatekoa gutxitu egin da 1,29 milioi, gutxi gorabehera, amortizazioen eraginagatik.

Hortaz, 2014ko gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak ontzat emanda (hau da, mailegu berririk kontratatu ez eta ekitaldiko amortizaziorik ez), koadro honen bidez oraingo Udalbatzaren ibilbidearen 3 urteotako zorpetzearen eboluzioa ikusi dezakegu:

FINANTZA ZORRAREN EBOLUZIOA 2011-2014

KONTZEPtua	SALDOA 2011/1/1	AMORTIZAZIOA 2011-2014	MAILEGU BERRIAK	AZKEN SALDOA 2014/12/31
Banketxeekin dugun zorra	5.073.932,03 €	4.875.318,44 €	3.104.928,42 €	3.303.542,01 €
2009 UFFF zorra	3.077.493,19 €	3.077.493,19 €	-	0 €



ZORRA GUZTIRA	8.151.425,22 €	7.952.811,63 €	3.104.928,42€	3.303.542,01 €
--------------------------	-----------------------	-----------------------	----------------------	-----------------------

Koadroan ikusi dezakegu 2014ko bukaeran, aurrekontuaren mailegu berria eskatu ezean, gutxitu egin dela zorraren zenbatekoa ($\nabla\%59,5$), 2011ko hasieran genuen zor kopuruari buruz. Arazoa dago egoera hobe horrek, zorpetzeari buruz, ez duela balio oraingo egoeran kreditu berriak eskatzeko inbertsioen bidez finantzatzeko, izan ere, ez lege esparruak ez azokako baldintzek ez dute halako aukerarik ematen.

Aurreko aurrekontuetan bezala, memorian aztertu behar dugu 1991-2012 aldian maileguengatiko zorraren eboluzioa, eta 2014ko aurrekontuaren erreferentziak edo estimazioa erabiliko ditugu (lehenago aipatu ditugun lan hipotesien arabera, hau da, mailegurik ez 2014an). Halaber, zor hori lotuko dugu aurrekontuetako likidazioetatik lortutako diru-sarrerara arruntekin (2013koak izango lirateke, adierazi bezala, itxiera aurrerapenaren datuen arabera eta 2014koak izango lirateke aurrekontu aurreikuspenen arabera), erreferentzia hori ulerturik Udalaren gaitasun ekonomikoaren neurri gisa.

MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA – 1991/2014 ALDIAN (MILA EUROTAN)

URTEA	HASIERAKO ZOR BIZIA	MAILEGU BERRIAK	AMORTIZ. EKITALDIA	BUKAERAKO ZORRA	AURREKO URT.Z
1991	4.398,2	1.388,9	218,2	5.569	26,6%
1992	5.569	2.013,4	295,7	7.286,7	30,8%
1993	7.286,7	4.771,4	2.372,2	9.685,3	32,9%
1994	9.685,3	2.434	378	11.741,4	21,2%
1995	11.741,4	1.911,2	605,8	13.052,2	11,2%
1996	13.052,2	2.704,6	3.755,1	12.001,6	- 8,0%
1997	12.001,6	---	976	11.025,6	- 8,1%
1998	11.025,6	---	1.033,1	9.992,4	- 9,4%
1999	9.992,4	1.434	1.140,1	8.852,3	- 11,4%
2000	8.852,3	-	1.123,9	7.728,4	- 12,7%
2001	7.728,4	1.803	1.156,3	8.375,1	+8,4%
2002	8.375,1	1.800	1.240,1	8.935,3	+ 6,7%
2003	8.935,3	---	1.429,2	7.506,1	- 16%
2004	7.506,1	---	1.682,5	5.823,6	- 22,4%
2005	5.821,6	5.904,9	1.723,8	10.004,7	+ 71,8%



2006	10.004,7	1,200	1.328	9.874,7	- 1,3 %
2007	9.874,7	---	1.227,2	8.647,5	- 12,5%
2008	8.647,5	---	1.060,2	7.587,2	- 12,3 %
2009 (1)	7.587,2	3.077,5	1.081,9	9.582,8	+26,3%
2010	9.582,8	-	1.403,5	8.179,3	-14,6%
2011	8.179,3	3.111,2 (2)	2.146,0	9.144,5	11,4%
2012	9.144,5	---	2.438,2	6.706,3	-27 %
2013 (3)	6.706,3	--	2.346,9	4.359,4	-35%%
2014 (4)	4.359,4		1.055,9	3.303,5	-25,3%

(1) – Mailegu berri tzat jotzen dugu Foru Aldundiaren aurrerakina, 2009ko UFFFren saldo negatiboarengatik.

2) – Eusko Jaurlaritzaren interesik gabeko aurrerakina barne (2010eko murrizketa eta 2011ko berria)

(3) – 2013ko aurrekontuko itxierako estimazioen arabera

(4) - 2014ko aurrekontuko datuen arabera, mailegu berririk gabe

Maileguen zorra lotzen badugu Udalaren diru-sarrerara arrunt edo korronteeekin eta 1990-2014 aldiko eboluzioarekin, koadro hau daukagu:



MAILEGUEN ZORRA LOTZEA DIRU-SARRERA ARRUNTEKIN
1990 – 2013 ALDIKO EBOLUZIOA

EKITALDIA	ZORRA 12/31N	LIKID. ESKUB. ERAG. ARRUNT.	%G./ SARRERA ARRUNTAK
1990	4.398,2	9.767,6	45%
1991	5.569	10.862,7	51,3 %
1992	7.286,7	12.550,9	58,1 %
1993	9.685,3	12.337	78,5 %
1994	11.741,4	13.078	89,8 %
1995	13.052,2	13.477,7	96,8 %
1996	12.001,6	14.944,8	80,3 %
1997	11.025,6	15.971,9	69 %
1998	9.992,4	16.194,9	61,7 %
1999	8.852,3	17.340,4	51 %
2000	7.728,4	19.833,4	39 %
2001	8.375,1	18.784,2	44,6%
2002	8.935,3	19.167,7	45,7%
2003	7.506,1	21.070,8	35,6%
2004	5.821,6	24.461,2	23,8%
2005	10.004,7	24.549,4(*)	40,8%
2006	9.874,7	27.650,8	35,7%
2007	8.647,5	28.870,84	30%
2008	7.587,2	28.469,48	26,6%
2009 (zor moduan 2009 UFFF zenbaturik)	9.582,8	26.072,0	36,7%
2010	8.179,3	27.608,6	29,6%
2011	9.144,5	25.631,8	35,7%
2012	6.706,3	26.665,2	25,2%
2013 (itxiera estim. arabera)	4.359,4	27.100	16,1%
2014 (aurrek. datuen arabera)	3.303,5	28.845,7	11,5%


(*) 2005az geroztik, aprobeixamendu lagapen monetarizatuak eta hirigintza kargak ez dira zenbatzen diru-sarrera moduan



Koadro hau eta aurrekoa aztertuz gero, ikusiko dugu 1991 – 2014ko bukaerako aldiari maileguren zorra, termino absolutuetan, nahiz eta %40 gutxitu den, diru-sarrera arruntei dagokionez ekitaldi bakoitzaren bukaeran, eta ikusiko dugu 2013aren bukaeran dugula aztertutako aldiaren unerik onenean. Hau da, zorraren zenbatekoa gutxitu egin da, eta Udalaren ahalmen ekonomikoari dagokionez, Udalak Banketxeekin hartutako konpromisoen edo zorren maila gutxitu egin da nabarmen.


Azken baten, 1990-2014 aldiari zorraren eboluzioa eta hazkuntza Udalaren ahalmen ekonomikoaren eboluzioaren azpitik joan da, bere diru-sarrera arrunten bidez neurturik. Nolanahi ere, aurreko aurrekontuetan aipatu bezala, konklusio hori, egia bada ere, kontu handiz erabili behar dugu, izan ere, oraingo egoeran beste arrisku batzuk daude, aurreko urtealdietan ez zeudenak, adibidez, oraingo zerbitzuei eustea diru-sarrerak hazteko zailtasun handiak dituzten testuinguru batean, zergak ordaintzeko orduan berankortasun arazoak, beste administrazio batzuek diru-laguntza programak murriztu izana, maniobra marjina urria inbertsioak eta aurrekusi gabeak finantzatzeko, gastu arrunten eta lehendik hartutako konpromiso finkoen ondorioz. Hori guztia, ahaztu barik azken biurtekoan izandako banku finantzaketa nabarmen garestitu dela, aholkatzen duena ez erabiltzea halakorik oraingo egoeran.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zein eboluzio izan duten 1990/2014 aldiari maileguren zorraren aldagaiek eta diru-sarrera arruntek (2014. urteko datuak, aurrekontuaren kopuruaren arabera)





1990/2014 MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA ETA OHIKO DIRU-SARREREKIN DUEN LOTURA
MILA EUROETAN





DIRU-SARREREN AURREKONTUA - 2014

Aurrekontua da 31.711.604,61 euro eta 2013ko aurrekontuaren aldean %6,38ko igoera du.

Aztertzen badugu eboluzioa 2014ko aurrekontuaren kapituluz kapitulu, 2013ko aurrekontuaren aldean, konparazio koadro hau lortuko dugu:

2014-2013 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUKA (MILA EUROTAN)

KAPITULUA	AURREK 2013	%/GUZ.	AURREK 2014	% GUZ.	ALDEA 2014-2013	2014/13
I - ZUZENEKO ZERGAK	7.081,7	23,76%	7.792,5	24,57%	710,8	10,04%
II - ZEHARKAKO ZERGAK	519,3	1,74%	550	1,73%	30,7	5,91%
III TASAK ETA PREZIOAK	6.205,2	20,82%	6.527,2	20,58%	322	5,19%
IV TRANSFER. ARRUNT.	12.882	43,21%	13.734,8	43,31%	852,8	6,62%
V ONDARE SARRERAK	238	0,80%	241,2	0,76%	3,2	1,34%
VI ONDAREA SALTZEA	286,2	0,96%	291,2	0,92%	5	1,75%
VII KAPITAL TRANSF.	241,7	0,81%	1.266,2	3,99%	1.024,5	423,87%
VIII FINAN.AKT. ALDAK.	90	0,30%	90	0,28%	0	0
IX FINAN.PASIB. ALDAK.	2.265,7	7,60%	1.218,5	3,84%	-1.047,2	-47,22%
GUZTIRA	29.809,9	100%	31.711,6	100%	1.901,8	6,38%

Koadro honen bidez 2014ko aurrekontuan izandako aldaketa nagusiak jasoko ditugu:


- Udal zerga-arloarekin I, II eta III kap.) lotutako diru-sarrerren kapituluetakoa protagonismoa handitu egin da apur bat, baterako gehikuntza bat dute termino absolutuetan, 1,06 milioi eurokoa, eta ehunekotan, aurrekontuaren diru-sarrera guztiei buruz, %46,3 izatetik pasatzen da %46,9 izatera.
- IV. Kapitulan – Transferentzia Arruntak, apur bat igo en da, bai termino kuantitatiboetan (+0,85 milioi euro) bai portzentaje terminoetan (%43,2tik %43,31 izatera pasatu da), 2013ko diru-sarrerren aldean. Igoera horren arrazoi nagusiak datoz Foru Funtsaren diru-bilketako ikuspegi hobek egitetik, bai eta enplegua sustatzeko kontratazioetarako diru-laguntza handiagoetatik ere.
- VII. Kap. – Kapital Transferentzietatik datozen baliabideak nabarmen handitu dira, eta pasatu dira diru-sarrera guztien %0,81etik %3,99ra, bereziki Goiru-Takolo




ibilbidearen obra egiteko Foru Aldunditik jaso behar den diru ekarpen bereziaren ondorioz, 0,96 milioi euro, ibilbide horren eskualdaketa aldatzeari dagokionez sinatu beharreko hitzarmen baten esparruan.

- IX. Kap.-Zorpetzea-ren pisua gutxitzea, pasatzen da urteko diru-sarrera guztien %7,6tik %3,84ra, nahiz eta kasu honetan konparazio horrek ez duen larregiko balioa, izan ere, azken urteotan aurrekontuetan izandako kopuruak dira erreferentzia hutsak aurrekontua koadratzeko, eta, gainera, borondatea dago mailegu berriak ez kontratatzeko, ahal den neurrian (2013ko likidaz. soberakinak erabiltzea, edo 2014ko gastuen eta diru-sarreraren exekuzio desbideraketak, eta abar, helburu horretarako), kapitalen merkatuaren oraingo finantza baldintzak ez baitira batere aldekoak.

Honekin batera doazen grafikoetan 2014ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa ikusi dezakegu, 2013ko aurrekontuaren aldean, bai eta diru-sarreraren aurrekontuaren kapituluz kapituluko portzentaje banaketa ere.





Azkenik, adierazi behar dugu 2014an Udalak izango dituen diru-sarreretako 100 euro bakoitzeko

- **46,88** datoz udal zergatik (diru-sarreren I, II eta III. kapituluak).
- **43,31** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen diru-laguntza arruntetatik, horietatik 39,4 datoz **Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik**.
- **0,76** lortzen dira **ondare diru-sarreren bidez**.
- **0,92** Udalak espero du lortzea **ondare saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru-sarreretatik**.
- **3,99** lortzen dira inbertsioak finantzatzeko jasotako **kapital diru-laguntzetatik**.
- **0,28** datoz **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **3,84** lortuko lirateke “teorian” **zorpetze bidez**, hau da, formalizatu beharreko mailegu berriak, nahiz eta, benetan, kontrako prezio baldintzengatik, 2014an kapitulu honen garrantzia murrizten saiatuko gara.



Orain diru-sarreraren aurrekontuaren aldaera nagusiak aipatuko ditugu.

LEHEN kapitulua – ZUZENeko ZERGAK - 7.792.500,00 euro

2013ko aurrekontuaren aldean, %10 igotzen da, nahiz eta 2013ko diru-sarreraren itxierako estimazioaren aldean, gehitzea izango litzatekeen %4 inguru.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, kontuan hartu ditugu 2013ko benetako diru-sarrerak, Kapitulua honetako zergak arautzen dituzten Ordenantza Fiskaletan 2014rako onartutako zerga aldaketak, 2013ko urriaren 29an osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera, bai eta diru-sarrera berezi batzuen estimazioa ere, azterketa lanetatik datozen zerga likidazioen ondorioz. Horrela kalkulaturako guztizko diru-sarrerei gutxitu diegu Fagor Electrodomésticos S.Coop.ren konkurtso prozesutik etorri daitezkeen ondorioak (0,3 milioi euro).

Horri dagokionez, onartutako aldaketa nagusiak hauek dira:

a) Hiri OHZ eta Landa OHZ – Zerga tasa gehitzea %2 hiri izaerako ondasunetarako, zerga tasa orokorra ezarriz 0,1992 eta industria zoruan hiri ondasunetarako 0,4987, eta une honetan ez dakigu Foru Aldundiak katastro balioak eguneratuko dituen edo ez (lurzoruaren balioa eguneratzeko proposamen bat dago, %1ekoa, eta eraikuntzaren balioa jaistekoa, eraikuntzaren erabileraren edo antzinatasunaren eraginez).

Hiri OHZn %50eko ginkargua mantendu dugu, ohiko etxebizitza ez diren bizitegi erabilerako ondasun higiezinarako, 4/2012 Foru Arauan, uztailearen 4koa, ezarritakoaren arabera, ginkargua ez aplikatzeko kasu berriren batekin eta 2013an zeuden beste kasu batzuk aldatuz edo egokituz.

b) Jarduera ekonomikoen gaineko Zerga - %2 gehitu da udal koefizientea, eta pasatuko da 2,15etik 2,193ra.

c) Trakzio mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga – tasa gehitzea %2 inguru.

d) Hiri-lurren balio gehitzearen gaineko zerga – zerga tasa %2 igo da, eta %6,49tik %6,62ra pasatu da; Ordenantzako testuari etxebizitzaren eskualdaketak egiteko aurreikusitako legezko erregulazioa gehitu diegu, ohiko etxebizitzaren hipoteka exekuzioagatik eta hipoteka zorrak ordainean emateagatik, zergadunaren ordezkoko kontsideratzea ondasun higiezinaren erosten duen entitatearen.

BIGARREN KAPITULUA – ZEHARKAKO ZERGAK - 550.001,00 euro

%5,9ko gehikuntza du, 2013ko aurrekontuaren aldean, nahiz eta, konparazio terminoetan (Garaia eta sartu gabe dagoen azterketako diru-sarrerak), 2013ko itxieran izan litekeen estimazioaren antzeko diru-sarrera kopurua planteatu den.



Kapitulu honetako diru-sarrerako kontzeptu bakarra da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta ez du izan aldaketa esanguratsurik 2014rako, zerga tipoa legez baimendutako gehiengan dago eta (obra, eraikuntza edo instalazioaren balioaren gainean %5).

Aurreko urteen aldean, Garaia berrikuntza gunean eraikuntzen gaineko zergaren likidazioez lortutako diru-sarrerarik ia ez dagoenez (2013an, batere diru-sarrerarik ez) eta nahiz eta diru-sarreren kontu-saila (Garaiatik datoren EIOZ eta EIOZ orokorra, gainerako eremuetakoa) bereizten jarraitu, 2014an euro bateko diru-kopurua jaso dugu aurrekontuan, bai gastuetan bai diru-sarreretan, handitu egin daitekeena. Horrela, diru-sarrerarik lortuz gero, horien kontura Garaia S.Coop.ri ordaindu beharreko kopuruak handitu ahal izango dira, 2010eko urriaren 7an osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera, Garaia S.Coop. entitatearen kapitala handitzea onartu baitzuen Udalak, eta baldintza zen kopuruak jarriko zituela baldin eta zerga horren truke diru-sarrerarik benetan sortzen bada. Azken batean, nahiz eta aurreko sistemak ez zuen sortzen desorekarik aurrekontuan, izan ere, pentsatu baino diru-sarrera gutxiago lortzen baziren diru gutxiago jarri behar zen kapitalerako eta denboran luzatu egiten zen osoko bilkuraren akordioa betetzea, oraingo sistemaren bidez (euro bat, handitu daitekeena) emaitza berbera dugu eta lortutako diru-sarreretak eta kapitalerako egindako ekarpenetako errealitateak gertuago dago.

2014rako, zerga berberean, kontu-sail berri bat sartu dugu; hortik bereiztea eta bereizirik kontabilizatzea komeni dela uste du Udalak, zehazki 2014an egin beharreko azterketa lanen ondorioz lortutako diru-sarrerak jasotzeko dena, 50.000 euroan baloraturik.

HIRUGARREN KAPITULUA – TASAK ETA PREZIOAK - 6.527.250,00 euro

Igotzen da %5,2, 2013ko aurrekontuaren aldean.

Udalbatzarrak 2013ko urriaren 29an egindako bilkuran onartutako zerga aldaketa nagusiak izan dira: %2 gehitzea tasa gehiengan, zaborren tasa izan ezik, %4 handitu baita.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, oinarri hartu dugu ekitaldiaren itxierako estimazioei buruzko informazioa.

Kapitulu honetako aldaketa esanguratsuenak zeintzuk diren jakiteko, ikuskaritzaren ataletik datozen diru-sarrera handiagoak aipatuko ditugu, bai zaborren tasan bai isunetan eta berandutze interesetan, horien eragin ekonomikoa kalkulatu baitugu 180.000 euro inguruan, alde zaharrean dauden eraikinetan termiten izurritearen aurkako tratamendu zerbitzua ematearen tasatik datozen diru-sarrera berriak (+24 mila euro) eta TAO sistema ezartzearen ondoriozko tasetatik eta isunetatik datozenak, bi kontzeptuetan 40 mila euroko zenbatekoak, bai eta zaborren tasa eguneratzearen ondorioz aurreikusitako diru-sarrera handiagoak ere. Aitzitik, diru-sarrera gutxiago espero dugu hirigintza santzioetan eta obra materialez jabetza publikoa okupatzearen tasan (2012 eta 2013ko urteetan diru-sarrera ohiz kanpokoak edo bereziak, seguruenik errepikatuko ez direnak 2014an), eta ur tasan 2013ko kontsumoan benetan izandako datuetatik kalkulatu ditugu diru-sarrerak, eta, akatsik edo omisiorik ez badago, kontsumo beherakada bat izango dugu, batez ere enpresen jarduerak moteldu egin direlako.

Azkenik, adierazi behar dugu kapitulu honetako hiru diru-sarrera kontzeptu nagusiek direla ur, zabor tasak eta zerbitzuak hornitzen dituzten enpresek jabetza publikoa okupatzearen tasa, eta horiek kapitulu honetako zenbatekoaren %77 dira.



LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 13.734.768,15 euro

Balio absolutuetan 0,85 milioi euro handitu da, 2013ko aurrekontuaren aldean, eta %6,62koa portzentaje terminoetan.

Gehikuntza hori azaltzeko, hona hemen arrazoi nagusiak:

- Lehena, memoria hasieran aipatua, 2014rako Foru Funttsaren diru-sarreraren estimaziotik dator; Arrasaterentzat 12.482.049 euroko kopurua da, 2013ko aurrekontuan aurreikusitako kopurua baino 0,62 milioi euro gehiago gutxi gorabehera. Kalkulu hori, era berean, Foru Aldundiak horri buruz egindako aurreikuspenetan oinarrituta dago, zehazki %4,98ko igoera bat hitzartutako zergengatik diru-bilketan, 2013ko aurrekontuko kopuruaren aldean (2013ko itxierako estimaziori buruz %5,08koa izango litzateke igoera). Gehikuntza hori egotzi dakioko, oinarrian, faktore hauen elkartzeari:

a.- Ekonomia hazi egingo delako aurreikuspena, termino errealetan, %0,9 hazi ere.

b.-Araudia berritzeak sortutako eragina (batez ere PFEZ eta ondasun asko dutenen gaineko zerga).

c.- 2011-2013 aldian Estatuari ordaindutako itzulketak bukatu izana 2013an, Rover kasuari buruzko epaiaren arabera.

d.- Eusko Jaurlaritzari Gipuzkoak eman beharrekoaren koefiziente horizontala aldatzea, eta %33,02tik %33,06ra pasatu da.

Puntu honetan komenigarria izan daiteke Aldundiak berak emandako aurreikuspenarekin jarraitu beharreko estrategiari buruz hausnartzea, Fagor Electrodomésticos S.Coop.k hasitako konkurtso prozesuaren berri jakin aurretik emandako informazioa baita. Hau da, aurreikuspen horiek ez dute baloratu Erkidegoarentzat eta Gipuzkoarentzat izan dezakeen eragina, bai Fagor itxi izanak bai haren "alboko" eragina (enpresen arteko fakturazioak, BEZ, zergak, Sozietateak, PFEZ, kontsumoan duen eragina, eta abar) euskal ekonomian. Hala, hasieran udaleko gobernu taldeak gogoan hartu zuen aurrekontuan diru-sarreraren aurreikuspen ezkorragoa edo errealistagoa sartzea. Edozelan ere, Foru Aldundiak ez dituen berraztertu behar datuak eta, bereziki, 2013ko itxieraren testuinguruan soberakin bat espero dugunez, aurreikuspenetan izan daitezkeen desbideraketak konpentsatzeko koltxoi izateko balio dezakeen soberakina baita, Udalak ulertu du hobe dela kopuru "ofiziala" mantentzea 2014an eta, kasu guztietan, haren eboluzioari buruzko jarraipen hurbila egitea ekitaldi osoan, eta neurri zuzentzaileak hartzea, desbideraketen tamainarren arabera, hala badagokio.

- 2014rako gehitzeko bigarren arrazoia dator aurreikusitako diru-laguntzetatik (emanda dauden Lanbidekoak eta Aldundikoak) langileen kontratazioak finantzatzeko, Enplegua Sustatzeko programaren babesean egindakoak; 2013ko urtearen aldean, diru-sarrera gehiago da, 192 mila euro.



- Kapitulu honetan aipagarriak diren beste gai batzuk dira, Gizarte Zerbitzuetako saileko langileen kostuak finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzaren murrizketak (26 mila euro gutxiago, %30eko jaitsiera, gutxi gorabehera), etxeko laguntza zerbitzurako aurreikusitako laguntzak gutxitzea (27 mila euro gutxiago, %10 gutxitzea), zerbitzuaren eskari gutxiago izatearen ondorioz, bai eta Aldundiaren diru-laguntza handiagoa ere, Euskara sailaren jarduerak finantzatzeko (24 mila euro gehiago, %185 inguru gehitzea).

Kapituluko gainerako kontu-sailetan, finkatuta dauden programei (Habe, kultura jarduerak, liburutegiak, Mankomunitatea-Udalako IE, Eusko Jaurlaritza-EBPN, Aldundia-gazteria eta Emakumea, eta abar) dagozkien zenbatekoak jaso ditugu aurrekontuan.

BOSGARREN KAPITULUA – ONDARE DIRU-SARRERAK - 241.200 euro

Igotzen da %1,34, 2013ko aurrekontuaren aldean. Kapitulu honek ez du garrantzi espezifikorik udaleko diru-sarreretan. 2013ko ekitaldiari buruz duen aldaketak oinarria du, nagusiki, azoka plazan saltoki itxi eta irekiak adjudikatzeagatik egindako diru-sarrera aurreikuspenetan, 2014ko urte bukaeran egitekoak.

Gainerako diru-sarrerei dagokienez, diru-sarreraren kontzeptu nagusia dator errentetatik edo alokairuetatik; horren diru-izendapena gutxitu egin da 2014rako, eta utzi dugu 150 mila euroan (-25 mila euro, nahiz eta oraindik 2013ko diru-sarrera errearen nabarmen gaineratik geratzen den), ulertzen baitugu, lortutako informaziotik eta egindako kontsultetatik abiatu, lokalak saltzeari buruz, bai eta erosteko aukeraz alokairu formularen interesari buruz ere, ez duela ematen eskari handirik dagoenik azken modalitate horretan.

Finantzako diru-sarrerei buruz, 30 mila euro, diruzaintzan soberakin gutxiago izango dugula uste dugunez, eta litekeena denez gordailuen ordainketa gutxitzea, horrek guztiak dakar aurrekontu estimazio txikiagoak.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK INORENTZEA - 291.200 euro

Igotzen da %1,75, 2013ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Kapitulu honetan, erabilitako etxeko olio biltzeko patentearen aprobetxamendua eta ustiapena lagatzeko hitzarmenetik datozen diru-sarrerak izan ezik, Fagor S.Coop. eta EKO3R enprekin sinatutakoa (aztertu egin beharko da zelan eragiten dion hitzarmenari hasi berri den konkurtso prozedurak) 2009/12/16koa, gainerako kontzeptuak, gaurko egunez, diru-sarrerako esperantza generiko hutsak dira, diru-sarrerako aurrekontu aurreikuspenak estaliko duen arrazoizko garapen maila bat duen operazio zehatzik ez dago. Nolanahi ere, historikoki diru-sarrerak lortu ditugunez kontzeptu horien truke, kopuru “zuhur” bat jarri dugu aurrekontuan, ekitaldi osoan egin beharreko jarraipen eta kontrol lanari lotua. Kasu guztietan, nahiz eta ez izan horretarako egoerarik egokiena, Udalaren borondatea da interes publikorako ez estrategikoak jotako aktiboen ondareak inorentzen jarraitzea.



Horri dagokionez, aurreko urteetan bezala, gure asmoa da Zerrajera inguruan etxabe jakin batzuk saltzen ateratzea, bai eta beste salmenta edo trukaketa batzuk ateratzea ere (Uarkape, eta abar).

Kargen eta hirigintza aprobetxamenduen aurreikuspenei dagokionez, diru-sarrerak lortzeko bidea dugu eremu jakin batzuk garatzen direnean (Udala, Zalduspe, eta abar), nahiz eta aurrekontuan jaso 25.000 euroko estimazio bat diru-sarreretan kontu-sail bakoitzean.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 1.266.204,49 euro

Igo da %423. Beraz, lau bider baino gehiago handitzen du 2013ko aurrekontuko aurreikuspena.

Igoera horren azalpena memoriaren hasieran aipatu dugu eta Goiru-Takolo ibilbidearen obra egiteko aurreikusitako operazio espezifikoa da, 958.204,49 euroko zenbatekoan, errepideen titulartasunen eskumen egokitze baten esparruan, diruz finantzatuko duena Foru Aldundiak, hartarako idatzitako hitzarmena edo akordioa sinatu eta gero. Diru-sarrera horrek 2014an gastuen-inbertsioen kontu-saila izango du, kopuru berberaz, eta nahitaez gutxienez lortutako diru-sarreraren zenbatekoa gastatu beharko da.

Aipagarria den beste kontu-sail bat da Aldundiak onartutako diru-laguntza, 128.000 eurokoa, udal inbertsioak bultzatu eta tokiko ekonomiak dinamizatzeko programaren babesean, 40/2013 Foru Dekretuan, azaroaren 19koa, erregulaturik dagoena; Arrasateren kasuan, Tokiko Gobernu Batzarrak 2013/12/2an hartutako akordioaren arabera Zerrajeran Gizarte Zerbitzuetako bulego berriaren obrak finantzatzeko erabiliko da.

Kapitulu honetan tamaina jakin bateko beste diru-sarrera batzuk datoz Hezkuntzako inbertsioen zati bat finantzatzeko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetatik (2013an eta 2014an egindako inbertsioen diru-sarrerak jasoko dira 2014an, izan ere, laguntzen deialdia atzeraturik argitaratu dute), 80.000 euroan, udal azokan igogailuko obrak egiteko irisgarritasunari buruz izan daitezkeen diru-laguntzetatik eta "Mendiko Nekazaritzako Inbertsioak" gastuen kontu-sailean aurreikusitako inbertsioak egiteko diru-laguntzetatik, %55etik gertu dagoen finantza portzentaje batekin.

Atal honetan egokia da errepikatzea aurreko ekitaldietan egindako hausnarketa, Udalaren inbertsio jardura (bai proiektuetan bai epe eta zenbatekoetan) onartzen joan daitezkeen diru-laguntza programei egokitzeko beharrari buruzkoa, Udalak uste baitu oraingo egoera ekonomikoan laguntzak lortzea dela erabakigarria, tamaina bateko inbertsioen exekuzioa bideragarri egin nahi badugu finantza ikuspegitik.

Horri dagokionez, arin samar, hartarako idatzi litezkeen laguntza programei erantzute aldera eta horien kostuan Udalari egokitzen zaion portzentajea finantzatu ahal izateko, aurrekontuak betetzeko arauetan jaso dugu, behar izanez gero, milioi bat euroan gehitzeko aukera 2014ko ekitaldian sinatu beharreko maileguen zenbateko osoa.



ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 90.001 euro.

Oso eragin txikia du aurrekontuan, eta Udalak langilei emandako aurrerakinak itzultzetik datozen diru-sarrerak dira (sartutako ordainketa berezien aurrerakinen kontu-saila), kontzeptu horietarako onartutako gastuaren zenbateko bera.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 1.218.479,97 euro

2014ko aurrekontuak “teorikoki” koadratzeko behar den kopurua da, hau da, planteatutako gastu guztiak finantzatzeko behar den diru-sarrera osagarria. Memori honetako hainbat ataletan komentatu dugu, oraingo finantzaketa baldintza okerrak ikusita, gobernu taldeak ez duela joko, ahal duen neurrian, zorpetze berrietara; hortaz, 2013ko ekitaldiko itxiera bidez lortu beharreko soberakinak, seguruenik, 2014ko maileguetarako aurrekontuan jasotako kopurua murrizteko erabiliko dira. Hitzaurre horrekin, adierazi nahi dugu kapitulu honetan egindako aurreikuspena dela guztiz teorikoa eta, praktikan, espero dugula, azkenik, behar ez izatea.

Bestalde, memoria honetan ere adierazi dugu (eta aurrekontua betetzeko arauetan erregulaturik) formalizatu beharreko maileguen kopurua 2014an handitu daitekeela beste milioi bat euroan, aurrekontua egonkortzeari eta finantza iraunkortasunari buruz ezarritako legezko betebeharrak bete behar direla kontuan izanik, finantzatzeko beharrak izanez gero horiek erantzuteko, beste administrazio batzuekin elkarrekin finantzatutako inbertsio proiektuetatik datozen beharrak, hain zuzen ere. Aurreikuspen hori egin dugu uste dugulako, nahiz eta une honetan ez jakin ziur aukerarik egongo den zentzu horretan, baietz izanez gero, ez litzatekeela logikoa izango hura exekutatzeari uko egitea, udal finantzaketarik ez dagoelako, are gehiago proiektu horiek laguntza portzentajeak eduki ditzaketenean, oso interesgarriak exekuzioa bideragarri egiteko. Aurrekontuaren agirian listoa ezarri dugu %40ko finantzaketa portzentajearen mailegu gehigarriaren bidea erabiltzeko, hori guztia kontuan izanik muga hori geroago berriro planteatu daitekeela, osoko bilkurak hala iritiz gero.

Dena den, krisi ekonomikoaren oraingo egoeran, finantzaketa iturrien prekarietatea (udalek jaitsiera garrantzitsua diru-laguntza programetan eta zenbatekoetan) eta kredituen murrizketa handia eta garestitzea (interes tipo aldakorra oraindik nahiko baxua, %0,2 ingurukoa, baina diferentziala edo banku marjina pasatu da hasierako %0,20tik oraingo %5-6ra 2010-2013 aldian), ematen du zorpetzearekiko baliabidea ezin dela izan jardun araua, baizik eta, kasu guztietan, salbuespen bat, eta erabili behar da aldagai hori zuhurtziaz, argi eta garbi identifikatutako helburuetarako eta ez defizit kroniko baten soluziobide gisa. Hau da, eskatuko dugu beste irtenbiderik ez badago eta, hortaz, 2013ko itxieran lortu beharreko soberakinak espero ditugunez, espero dugu sinatu behar ez izatea kreditu berririk 2014an.

Azkenik, eta memoria honetan zehar aipatutakoaren osagarri gisa, aztertuko ditugu Udalaren zorpetze indizean eragiten duten aldagaiak, bai eta 1991-2014 aldian indize horren eboluzioa ere.



ZORPETZE INDIZEAN ERAGINA DUTEN ALDAGAIEN KOADROA 1991 – 2014 ALDIA

URTEA	ZOR BIZIA MAILEGUAK	INTERES TIPOA, 12/31n	LIKID. ESKUB. ERAGIK. KORRONT.	ZORPETZE INDIZEA
1991	5.569	13%	10862,7	9,9%
1992	7.286,7	15%	12.550,9	11,5%
1993	9.685,3	8,75%	12.337	11,5%
1994	11.741,4	8,65%	13.078	14%
1995	13.052,2	9,25%	13.477,7	15,6%
1996	12.001,6	6,35%	14.946	11,2%
1997	11.025,6	4,86%	15.971,9	9,6%
1998	9.992,4	3,36%	16.194,9	9,5%
1999	8.852,3	3,39%	17.340,4	8,6%
2000	7.728,4	5%	19.833,4	7%
2001	8.375,1	3,5%	18.784,2	7,8%
2002	8.935,3	2,9%	19.167,7	9,8%
2003	7.506,1	2,12%	21.070,8	8,6%
2004	5.823,6	2,16%	24.461,2	7,6%
2005	10.004,7	2,49 %	24.549,4	9,3 %
2006	9.874,7	3,73%	27.650,8	5,9 % (4)
2007	8.647,5	4,68%	28.870,84	5%
2008	7.587,2	3,45%	28.469,48	4,7%
2009	9.582,8 ⁽³⁾	1,2%	26.072,0	8,5% ⁽³⁾
2010	8.179,3 ⁽³⁾	1,52%	27.608,6	8% ⁽³⁾
2011	9.144,5 ⁽³⁾	2%	25.631,8	10,1% ⁽³⁾
2012	6.706,3 ⁽³⁾	0,75%	26.665,2	9% ⁽³⁾
2013 ⁽¹⁾	4.359,4	0,75%	27.100	4,1% ⁽⁴⁾
2014 ⁽²⁾	3.303,5	0,75%	28.845,7	3,4%

(1) Itxiera estimazioaren arabera.

(2) (aurrek. datuen arabera) Kreditu berria kalkulatu da 10 urtera eta %5ean.

(3) Zorraren eta zorpetzearen eraginetarako, 2009ko UFFFGatik Foru Aldundiarekin dugun saldo negatiboa sartuz, intzidentzia handia baitu finantza kargetan, hiru urtean ordaindu behar baitugu, 2011-2013. Zor moduan zenbatu ezean, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zorpetze indizea izango litzateke, urtealdi bukaeran, %4,5, %4,2, %6 eta %5, hurrenez hurren.

“Normala ez den” jaitsiera dugu finantza kargak gutxitu direlako, 2005etik aurrera 2 mailegu guztiz amortizatuko dira eta Antzeko egoera, 2009ko foru fondoaren saldo negatiboa finantzatzearren eraginez eta 2 mailegu amortizatu/deuseztatzearen eraginez.



Koadro honetan ikusi daiteke zelan erlazionatzen diren euren artean zorpetze indizea zehazten duten aldagaiak. Horrela, adibidez, 1993 urtean gertatutakoa, 2,4 milioi euroan igo zen zor bizia eta, nahiz eta diru-sarrera gutxiago izan operazio korronteak direla-eta, horrek ez zuen ekarri zorpetze indizea igotzea, interes tipoa ikaragarri jaitsi zen eta.

Edozelan ere, interes tipoa egonkortu denez apur bat, 1996/2014, ikusten dugu zorpetze indizea dabilela zor biziaren arabera, amortizazio erritmoaren arabera eta diru-sarrera arrunten eboluzioaren arabera. Atal hauen eraginaren lagin garbia da behartuta gaudela hiru urtean Foru Aldundiari 2009ko UFFFen saldo negatiboa itzultzen, 3,3 milioi euro, ia bikoiztu egiten duena 2009ko ekitaldirako azken zorpetze indizea. Indize hori dexente jeitsi da 2013tik aurrera, 2 mailegu guztiz amortizatu eta gero (Kutxa eta BBVA) eta behin betiko Foru Aldundiarekin dugun zorra kitatu eta gero.

Honekin batera doan grafikoa ikusi daiteke zein den zor biziaren eboluzioa, maileguetan eta baliabide arruntek likidatutako eskubideetan, eta zein den zorpetzearen eboluzioa 0tik %25era (baimendutako gehieneko muga gisara definiturik).

